

**TAILERRA: BERRIRO ERE
ARTEA PROPOSAMEN GISA,
ERALDAKETA SOZIALERAKO
TRESNA ETA MOTOR GISA
HARTZEA**

7 de mayo 2019

de 9.30 a 14 horas.

GARABIA ARETOA

ZAWP BILBAO

DEUSTUIBARRA, 47



AURKEZPENA

2011. urtean, [Artea inklusiorako eta gizarte-eraldaketarako](#) bosgarren sormen-lantegia gauzatu genuen. 2012ko irailean, berrikuntzako gure bilduman argitaratu genuen. Guretzat, oso proposamen adierazgarria izan da eta nolabaiteko ibilbidea izan du urte hauetan zehar. Argitalpena hainbat aldiz izan da aitortua, eta [II. CULTUMETRIA JARDUNALDIA: KULTURAREN INPAKTUAREN NEURKETA](#) jardunaldian esperientzia partekatzeko behategi gisa gonbidatu gintuzten. Jardunaldi hori Grupo Urbegik antolatu zuen 2015ean, [Azkuna Zentroan](#). Horrez gain, 2017an [TEAk \(Tenerife Arteen Eremua\)](#) antolatutako [“CEAri \(Kontsumoa, ekitatea eta kulturarako sarbidea\) buruzko Gogoeta egiten”](#) jardunaldietan ere izan ginen. Aitorpen horiez harago, agian, adierazgarriena honako hau izan da: lantegian bertan pertsonen eta erakundeen arteko hainbat konexio sortu ziren eta artea gizarteratzeko prozesuekin lotzen zuten ekimen zehatz bihurtu ziren.

Urte horietan guztietan, jakitun gara artearen eta kulturaren arloan, baita hirugarren sektore sozialeko erakundeen eremuan bertan ere, zenbat proposamen sortzen diren etengabe. Horiek adierazpen artistiko eta kultural handiekin lotura izanik, inklusioko, herritarrek parte hartzeko eremuen sorrerako edo gizarte-eraldaketako helburuak lortzen dituzte.

Hain zuzen ere, esan genezake bereziki indarrean dagoen eta proposamen adierazgarriak sortzeko gai den jarduera-eremua dela. Horrela, egungo

¹ Kartelaren irudiak IV sormen lantegiko [esperientzien dokumentuan](#) sartutako zenbait proiektuekin lotuta daude.

testuinguruan, agian, ekimen mota honetako bi bereizgarri garrantzitsu nabarmen genitzake.

- Izaera irekia eta berritzailea, historikoki gizarte-eraldaketako zereginak garatu dituzten esku-hartze sozial gehienak eta erakundeak gizarte-ongizatearen inguruan (batez ere, gizarte-zerbitzuen arloan) sortutako arreta-sistemekin lotzen ari direnean.
- Taldeen eta eragile anitzen artean (maila sozialeko proiektuak, herritarren, artisten, talde kulturalen mugimenduak, instituzionalizatuago dauden eremuak eta sektore kultureko eta hirugarren sektore sozialeko erakundeak...) lotura eremuak sortzeko gaitasuna, kulturaren eta artearen ikuspegitik edo hirugarren sektorearen edo esku-hartze sozialaren ikuspegitik katalogatzeko nekezak diren elkargunerako edo hibridazio-inguruneak sustatuz askotan.

Hori dela eta, artearen, kulturaren eta gizarte-eraldaketaren arteko gurutzaketa hau, oraindik ere, bistaratu, ezagutu eta balioetsi beharreko gaia eta errealitatea direla uste dugu. Eta baita elkar ezagutzeko, gogoeta egiteko eta konfluentzia-eremuak sortzen jarraitzea egokia izan daitekeen pertsonen, erakundeen eta proiektuen ingurunea ere. Helburu honekin, tailer hau proposatu nahi dizuegu gogoeta egiten eta interes zehatz horretatik abiatuta elkartzen jarraitzeko eremu gisa.

HELBURUAK

- Gizarte-artearen eta kulturaren arloa deskribatu eta bereiztea, gizarte-eraldaketako tresna den heinean.
- Jarduera arlo honetako egoerari buruzko azterketa eta aurrerapenaren aukerak partekatzea (egungo egoera, zailtasunak, aukerak eta erronkak), ikuspegi-aukera horretatik abiatuta.
- 2011. urteko sormen-lantegiko pertsonak eta erakunde parte-hartzaileok ostera ere topo egitea proiektu desberdinen bilakaera eta jarduera arlo honetako egoerari buruzko egungo ikuspegia partekatzeko.
- Eduki horien inguruan beren ekimenak eta gogoetak partekatu nahi dituzten artearen, kulturaren eta hirugarren sektore sozialeko (proposamen mota honetan interesa dutenak) arloko proiektuekin eta erakundeekin topo egitea.

EGITARAUA

9:30 Bertaratu diren pertsonen harrera eta jardunaldiaren aurkezpena.

9.45 Hitzaldia Claudio Pansera-ren eskutik. “Arte soziala. Kultura, errealitateak eraldatzeko tresna gisa.”

12:00 Atsedenaldia.

12.20 Tailerraren eremua (behatokiko taldeak dinamizatuta)

- Nondik gatozen, nor garen eta zer egiten ari garen.
- Jarduera arloaren ezaugarriak. Bilakaera, zailtasun-eremuak eta aukera. Erronkak.
- Bateratzeko eta topatzeko dinamikak sortzeko aukeren gaineko gogoeta.

14.00 Tailerraren amaiera.

NORI ZUZENDUTA DAGOEN

Zeregina hirugarren sektore sozialean edo kultura eta arte-adierazpenen arloan garatzen duten, eta gizarte-eraldaketako proposamenak sortzeko eta bi munduak lotzeko interesa duten pertsona eta erakunde guztiei dago tailerra zuzenduta.

Bosgarren sormen-lantegian parte hartu zenuten pertsona eta erakunde guztiak gonbidatu nahi zaituztegu batez ere. Era berean, aipatutako jarduera arloarekin lotuta Euskadi mailan sortzen ari diren pertsoneri, proiektuei eta ekimeneri zuzeneko gonbidapena egingo diegu, eta tailerrean landuko ditugun proposamen-espektroa zabaltzen saiatuko gara.

CLAUDIO PANSERA



Aktibista kulturala, kudeatzaile kulturala, ekoizlea, irakaslea, kazetaria, kultura eta gizarte-garapenari buruzko argitalpenen editorea. Beste batzuen artean, liburu hauen egilea: “Cuando el arte da respuestas. 43 proyectos de cultura para el desarrollo social” (2006); “El cuento como herramienta social. Narración oral comunitaria en América Latina” (2013); “Producción teatral en cárceles. Entre la resiliencia y la transformación social”. “Teatro y salud. Entre el caos biológico y el arte terapéutico” (2017); “Los móviles. Experiencias teatrales en cárceles” (2018). [Linkedin](#)

ZAWP-ERA NOLA IRITSI

Metroan, autobusean edo bizikletaz hurbiltzea gomendatzen dugu.

Metroa: Deustu (Iruñeko irteera). Hamar minutu oinez. Mikrobusa (Bilbobus): A4 Zorrotzaurre-Deustu. Bost minutu.

- Hartu hemen: Luis Power geltokia, Deustuko anbulatorioa.
- Jaitsi hemen: Diesel tailerreko geltokia.

Beste aukerarik ez baduzu eta autoz bisitatu behar bagaituzu: Zorrotzaurreko norabidea hartu eta Frank Ghery zubia gurutzatu. Bi minutu (erref. Ribera taberna)



EMAN IZENA

Esteka honen bidez: <https://forms.gle/7y4pVsTniPULCHSJ8>, Bidali email bat promocion@3sbizkaia.org helbidera edo deitu 94 400 33 55 zenbakira